



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2020ko martxoaren 25ean Udal Batzarrak buruturiko ezohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko martxoaren hogeita bostean, goizeko bederatzitan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna Mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Nerea Odriozola Larrañaga,, Beatriz Zubia Arambarri,** EH BILDU Udal taldeko zinegotziak eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberria eta Eva Mangas Beobide,** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak. Covid-19a dela eta ahal den pertsona gutxien elkartzeari helburu izanik ez dira etorri hala adostu delako **Ruben Alberdi Uranga, Aitor Salegi Martija, Pilar Perurena Larrañaga, Karmel Bedita Mendizabal Irigoien, Katixa Monreal Cuesta eta Javier Manteca Martin .**

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

1.- COVID-19AK HERRI ETA UDALEAN SORTURIKO ALDAKETEN INGURUKOAK.-

Alkateak berri eman du Covid-19aren inguruan udalak hartutako erabakiei buruz:

- **2020-03-13koa:**

"BANDOA

Zestoako Udalak herriko eraikin publikoak ixtea erabaki du

*Euskal Herriko Koronabirus kasuen gorakadaren aurrean, eta Eusko Jaurlaritzaren **neurri eta gomendioak jaso ostean,** Zestoako Udalak gaurtik (martxoak 13) **beste hainbat neurri jarri ditu indarrean, pertsonen gehiegizko kontzentrazioa saihesteko** eta, horrela, birusaren zabalpena gutxitzeko.*

Udal zerbitzu eta jarduerak hauek bertan behera utziko dira:

- Kirol instalazioak (Kiroldetxea, futbol zelaia, ...)
- Gaztelekua
- Liburutegia
- Kultur Etxea
- Arroagoiko, Arroabeko, Aizarnako eta Iraetako kultur etxeak.
- Idiazpiko lokalak.
- Turismo bulegoa
- Ekainberri

Herritarren Arreta Zerbitzua ohiko ordutegian izango da irekita, 8:30etatik 14:00etara, baina beharrezkoa bada bakarrik joatea gomendatzen da udaletxera, eta administrazio elektronikoa eta telefono bidezko kudeaketa erabiltzea ahal den kasu guztietan.

Zestoan, 2020ko martxoaren 13an



ZESTOAKO UDALA

ALKATEAK”

• 2020-03-06koa:

“BANDOA

Koronabirusa eta Alarma egoeraren aurrean:

Herritarren mugimenduak mugatu dira, eta ondorengo zeregin hauetarako mugimenduak soilik daude baimenduta:

- Elikagaiak, botikak eta oinarrizko produktuak erosteko.
- Osasun zentroetara joateko, aurrez ordua hartuta izanez gero.
 - Lantokira joateko.
 - Ohiko bizitokira itzultzeko.
- 3.adinekoak, adin txikikoak, menpekotasunen bat dutenak eta, oro har, egoera zaurgarrian daudenak artatu eta zaintzeko.
 - Banketxera joateko.
 - Ezinbesteko egoera baten aurrean.
- Behar bezala justifikatutako antzerako jarduera bat.

Kasu guztietan, pertsona bakarra aterako da zeregina burutzeraz.

Udal zerbitzuak

Udal eraikin guztiak itxita daude gaurtik aurrera, udaletxea barne. Udal zerbitzuekin harremanetan telefono bidez edo telematikoki jarri ahal

izango da. Arau hauek hausteak isun larriak jasotzeko arriskua izan dezakeela ohartarazi nahi da.
Zestoan, 2020ko martxoaren 16an

ALKATEAK”

• 2020-03-16ko gomendioak:

“UDALAREN GOMENDIOAK, IREKITA DAUDEN DENDETAKO LANGILE ETA EROSLEEI

Guztion osasun baldintzak bermatzeko eta birusaren zabalkundea ahalik eta gehien murrizteko, Zestoako Udalak honakoa gomendatzen du:

- Dendetara benetan beharrezkoa den kasutan bakarrik joan eta kontuan izan ondorengoa:

- Familia bakoitzeko pertsona bakar bat joan daiteke.
- Arrisku faktoreen bat edukiz gero (adina, gaixotasun kronikoren bat...), etxetik ez irtetea gomendatzen da.
- Eztula eginez gero, ukalondoarekin tapatu ahoa eta ez eskuarekin edo eskuekin.
- Merkatariei eskularruak eskuragarri jartzea gomendatzen zaie, eta hala daudenetan eskularruak jantzi eta amaitzean zaborrontzian botatzea gomendatzen zaie erosleei.
- Ahal dela, ordainketak kreditu txartelarekin egin, dirua transmisio-iturri izan daiteke eta.
- Dendetan gehienez 7 pertsona sartu ahal izango dira, betiere 1,5 metroko distantzia mantenduz.
- Denda barruan gehienezko jende kopurua dagoelako kanpoan itxaron behar bada, 1,5 metroko segurtasun-distantzia bermatuz egingo da ilara.
- Elikagaien hornidura bermatuta dagoenez, ez dago beharrezkoa ez den elikagai kopururik erosi beharrik., zentzuz jokatu.

Zestoan, 2020ko martxoaren 16an
ALKATEAK”

• 2020-03-17ko alkatetza ebazpena:

“ALKATETZA EBAZPENA 158 ZK.

MIKEL ARREGI URRUTIAK, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakariak, kontuan izanik Covid-19 birusak sorrarazi duen egoera, Zestoako udalerrian adinekoei laguntza eskaintzeko bolondres taldea sortu eta kudeatuko duen agindua ematen dut.

KONTUAN IZANIK

- Osasun Sailburuak, “Osasun Alerta edo Larrialdi Aitorpena” sinatu du.



ZESTOAKO UDALA

- Seguratasunerako Sailburuak, Euskadiko Herri Babeseko Planaren (LABI) larrialdi-fasearen 1 egoera deklaratu du (153/1997 dekretua, 1997ko ekainaren 24koa, Larrialdiei aurrigiteko bidea-LABI deritzon Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena eta 1/2017 legegintzaldiko dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testuategina onartzen duena).

- Lehendakariak Dekretu bat sinatu du, zeinaren bidez bere gain hartzen duen aipaturiko Euskal Legediak ezartzen duen eran, larrialdi honen aurrean gidaritza bakarra eta babes zibileko erantzuna. Une honetatik, Lehendakariak gidaritza hori hartuko du bere gain, aholku-batzorde batek lagunduta.

- Alarma egoera ezartzen duen 463/2020 Errege Dekretuko, martxoaren 14koa, 3., 6. eta 7. artikuluek diotena.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 18-B eta 21-M artikuluek diotena.

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17.1.1, 17.1.10 eta 17.1.13 kontuan harturik.

- 1/2017, apirilaren 27ko Lege Dekretua, Emergentsien Kudeaketarako Legearen testuategina jasotzen duenaren 1.1, 1.2C eta 1.3 kontuan harturik alde batetik; eta bestetik, 4. eta 13. artikuluek.

EBAZTEN DU

Lehena.- Zestoako udalerrian adinekoei laguntza eskaintzeko bolondres taldea sortzea.

Bigarrena.- Zestoako udalerrian adinekoei laguntza eskaintzeko bolondres taldeko partaideak ondorengoak dira:

J.I.E	15986525F
A.E.A.	72437693K
O.I.A.	72835819V
A.G.A.	72599378Q
J.A.E.	35777795F
A.A.A.	34108058R
I.S.A.	72839797Q
H.S.B.	X1884025A
E.I.I.	73049396Q
R.A.G	72427014Z
A.A.U.	44335359F
M.N.S.	72508823N
I.Z.E.	72514910G
A.A.A.	72523574C
J.E.A.	72554409N
N.G.A.	35773481V
A.D.J.	72487260T
Y.C.T.	72518005V
J.I.E.	72542822V
E.E.Z.	15956811D
O.A.O.	72518359A
I.W.E.	72537571X
S.U.S.	15907491R
H.A.N.	73031290B



ZESTOAKO UDALA

V.I.E.	72502839P
M.B.M.	44348422Y
E.I.U.	44158628P
E.U.G.	44163940F
L.U.U.	15930081M
M.U.E.	44333628R
J.O.G.	72839838B
A.O.R.	72838811L

Hirugarrena.- Bolondres talde hau indarrean egongo da alarma egoerak dirauen bitartean.

Laugarrena.- Udalak helarazitako protokoloa jarraitu beharko da.

Bosgarrena.- Bolondres taldearen kudeaketa eta koordinazioa Zestoako Udaleko Alkateak egingo du.

Zestoan, 2020ko martxoaren 17an
ALKATEAK,"

Boluntario taldean 32 herritarrek eman dutela izena hasiera batean argitu du, nahiz eta erreserban herritar gehiago egon. Boluntario hauentzako protokolo bat ere landu dela adierazi du alkateak, babes neurriak hartzeko. Orain arte zerbitzu bat eman dela adierazi du.

Bestalde etxez etxeko erabiltzaileei gizarte zerbitzuetatik jarraipena egingo zaiela gaineratu du.

Udaleko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko zerbitzua ere refortzatu behar direla azpimarratu da.

Desinfekziorako plan bat dagoela adierazi du alkateak, suhiltzaileak ere lan horietan ari direla gaineratu du. Udalak bere kabuz, bi egoitzen kanpoak desinfektatuko dituela adierazi du eta horretarako pulberizadore bat erosi duela.

Eskularruak lortu direla erantzun du alkateak, maskarilak berriz eskatuta daudela baina jaso bitartean, etxez etxekoentzako San Juan Egoitzak utzi dituela gaineratu du. Hala eta guztiz maskarilak eta buzoak eskatuta daudela adierazi du alkateak.

Alkateak adierazi du oinarrizko materialak falta direla eta tela kirurgikoarekin maskarilak nola egin ere azaldu dutela San Juan Egoitzakoek. Egoera honetan lehentasuna osasun zentroak eta egoitzak direla adierazi du.

Alkateak gaineratu du, pasa den asteko astelehenean, martxoak 16an brigadakoekin bilera egin zela oinarrizko neurriei buruz. Orain udal langileek ez dutela fitxatzen adierazi du.



ZESTOAKO UDALA

Gai honetaz Zestoako Udalaren lan prebentziorako enpresa Lautalani protokolo txostena eskatu zaiola adierazi du alkateak eta txostena igorri dutela.

Gizarte zerbitzuei dagokienean, arratsaldetan telefonoa hartzeko aukera aztertuko dela adierazi du alkateak, momentuz bi teknikari eta administrari laguntzaile bat daudela adierazi du.

Bulegoetan berriz, telelana ezarri dela neurri batean adierazi du. Euskara, ingurumena, idazkaritzako teknikaria, nahiz eta tarteka etortzen diren. Harrerako bulegoetan hiru langile txandakatzen ari direla gaineratu du.

Orduei buruz, printzipioz soldatak errespetatuko direla adierazi du alkateak. Udal langileek orain sartzen ez dituzten orduak gero sartzeko prest agertu dira, nahiz eta ehuneko ehun ez diren exijituko.

Kiroldegiko langileak etxera joango dira, ekipamenduak itxita daudelako. Orain arte lan batzuk egiten egon dira.

Liburutegian berriz, lan batzuk badaudela adierazi du, beheko lokala, digitalizazioa. Gai hauetaz berarekin hitz egingo dela dio, baina beharbada eten egin beharko dela.

Gizarte zerbitzuak eta brigada ehuneko ehunean mantenduko direla, nahiz eta malgutasuna izan eta ez dela fitxatzen.

Kaltetuak izango diren taldeei buruz aurreikuspenik badagoen, tabernari, autonomo,... galdetu da eta Alkateak erantzun du, beste erakundeetatik laguntzak daudela ikusita, hauekin asetu ez badira baloratuko dela laguntza lerro propio bat ateratzea.

Momentuan ibilgailuen zergaren kobrantza dago indarrean eta apirilaren 30an amaitzen da epea. Helbideratuta dutenekin ez dago arazorik, epea luzatzen bada bankuetara kobrantzak beranduago bidali eta nahikoa da. Helbideratu gabekoekin sortuko da arazoa epea luzatzen bada, ordain agiriak bidalita daudelako. Momentuz epearen luzapena ez da zehaztu, alarmaren epea noiz amaitzen den ikusi beharko da eta horren arabera erabaki bat hartu.

Larrialdiko mahaia formalki ez sortu arren, astero biltzeko asmoa agertu dute, nahiz eta batzorderik ez bildu.

Astero asteazkenero goizeko 9:00etan jarraipena egiteko biltzekotan gelditu dira, egoerak dirauen bitartean.

2.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Ez dago erregu eta galderarik.



ZESTOAKO UDALA

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa goizeko hamarrak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.
ALKATEAK,